

## IZENA EMATEKO ESKABIDEA

### BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZAK

#### 1. ESKATZAILEAK

Eskatzailearen datu pertsonalak

ABIZENAK			IZENA
NANa/IFZ	SEXU A	JAIOTZA- DATA	EGOERA ZIBILA
EGUNGO BIZILEKUA (Auzoa/Kalea/Ezkaratza/Eskailera/Eskua/Zenbakia eta abar)			
POSTA-KODEA	UDALERRIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA
Astigarragan erroldatuta zaude gaur egun? (BAI/EZ, non)			Erroldatze-data
Udalerrri horretan modu ez-jarraituan erroldatuta egon zara? (BAI/EZ)			
Erroldatze-urteak jarraian			
Mugikortasuna eragozten dizun desgaitasunen bat duzu?			
Zer-nolako desgaitasuna?		Desgaitasun fisikoaren maila	

Ezkontide edo bikotekidearen datu pertsonalak

ABIZENAK			IZENA
NANa/IFZ	SEXU A	JAIOTZA- DATA	EGOERA ZIBILA
EGUNGO BIZILEKUA (Auzoa/Kalea/Ezkaratza/Eskailera/Eskua/Zenbakia eta abar)			
POSTA-KODEA	UDALERRIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA
Astigarragan erroldatuta zaude gaur egun? (BAI/EZ, non)			Erroldatze-data
Udalerrri horretan modu ez-jarraituan erroldatuta egon zara? (BAI/EZ)			
Erroldatze-urteak jarraian			
Mugikortasuna eragozten dizun desgaitasunen bat duzu?			
Zer-nolako desgaitasuna?		Desgaitasun fisikoaren maila	

## 2. BIZIKIDETZA-UNITATEA

### 2.1. Eskatzailearen edo haren ezkontidearen/bikotekidearen SEME-ALABAK, GURASOAK, AITONA-AMONAK ETA BILOBAK BAKARRIK.

NANa	Izen-abizenak	Jaiotza-data	Ahaidetasuna	Sexua	Egoera zibila	Etxebizitzaren titularra (X)	Mugitzeko desgaitasuna duena (X)

### 2.2. Eskatzailearen edo haren ezkontidearen/bikotekidearen ANAI-ARREBAK, OSABA-IZEBAK, ILOBAK ETA KOINATU-KOINATAK: etxebizitzaren titularrak izango dira beti.

NANa	Izen-abizenak	Jaiotza-data	Ahaidetasuna	Sexua	Egoera zibila	Mugitzeko desgaitasuna duena (X)

Atal hau betetzeko irizpideak:

Zure bizikidetzta-unitateak kide gehiago baditu, eskatzaileaz eta haren ezkontide edo bikotekideaz gain, atal hau bete beharko duzu, honela: identifikatu eta adierazi beste kide

horietako zein izango diren, halaber, etxebizitzaren titularrak. Inola ere ezin izango da etxebizitzaren titularra izan bizikidetza-unitatean agertzen ez den pertsona bat.

Bizikidetza-unitatea osatzen dute: dagokionean esleituko den etxebizitzan biziko diren pertsonak, gaur egun norekin bizi zaren kontuan hartu gabe.

Adjudikatu beharreko etorkizuneko etxebizitzaren titularrak zein izango diren zehazterakoan (eskatzaileaz eta ezkontideaz edo bikotekideaz gain), honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Adopzio-harremanak eta 3. mailara arteko zuzeneko lerroko odolkidetasun-harremanak dituzten pertsonen kasuan (adibidez, aitona-amonak, gurasoak, seme-alabak edo bilobak), zuk erabakitzen duzu titularrak diren ala ez, baina hala direla aukeratzen baduzu, horrek berekin ekarriko du, alde batetik, pertsona horien diru-sarrerak bizikidetza-unitatekoei gehitzea, eta, bestetik, beste etxebizitza-eskabide batzuetatik kanpo uztea, etxebizitza babestuen eskatzaile baitira honen bitartez. Dena den, kontratua sinatzen duten titularrek adin nagusikoak izan beharko dute.
- 3. mailara arteko alboko lerroko odolkidetasun-harremanak eta 2. mailara arteko ezkontza-ahaidetasuna duten pertsonen kasuan (adibidez, anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, koinatu-koinatak eta abar), bizikidetza-unitateko adin nagusiko kide guztiak nahitaez izango dira titularrak, goian aipatutako ondorioekin.

### 3. ETXEBIZITZA-PREMIA

Bizikidetza-unitateko kideren batek ba al dauka gaur egun etxebizitzarik jabetzan, azalera-eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean?

BAI	
EZ	

Zure erantzuna ezezkoa izan bada, ez duzu dokumenturik aurkeztu behar, ofizioz egiaztatuko baita adierazitakoa egia den.

Zure erantzuna baiezkoa izan bada, bete ezazu honako taula hau:

Bizikidetza-unitateko edozein kidek gaur egun etxebizitza jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo gozamenean badauka, adierazi X batez honako lauki hauetakoren bat, eta aurkeztu eskatzen den dokumentazioa, kasu bakoitzean.	
5. eta 6. kasuetan, gainera, tasazio-txostenak aurkeztu beharko dira. 7.etik 9.era bitarteko kasuetan, kideak Astigarragako Udalaren eskueran jarri beharko du gaur egun daukan etxebizitza.	
1.-	Etxebizitzaren aurri-adierazpena egin da eta eraisteko agindua du (udal-zerbitzu teknikoaren ziurtagiria aurkeztu behar da), edo antolamenduz kanpokotzat jo dute.
2.-	Etxebizitza desjabetze-espediteren batek eraginpean hartutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda batean sartuta dago (ondasunen zerrenda eta desjabetzeko eskubidea aurkeztu behar da).
3.-	Etxebizitza gutxienez bost urte lehenago eskuratu zen eta ez ditu biltzen ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak (teknikari eskudunak horri buruz emandako txostena aurkeztu beharko da).
4.-	Etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari adjudikatuta dago, banantze- edo dibortzio-prozeduraren ondoren, gutxienez bi urte baino gehiagorako (hitzarmen arauemailearen eta auzian emandako epai judicial irmoaren kopia aurkeztu behar da).
5.-	Etxebizitza baten edo batzuen jaraunskidea(k), % 50eko edo hortik beherako titularkidetasun-ehunekoan, partaidetza guztien baturaren balioak 75.000 € gainditzen ez dituenean (herentziaren onarpena eta partaidetza-eskriurak aurkeztu behar dira).
6.-	Etxebizitza baten edo batzuen dohaintzaren ondoriozko titularra(k), % 50eko edo hortik beherako titularkidetasun-ehunekoan, titularren/partaidetza guztien baturaren balioak 75.000 € gainditzen ez dituenean (dohaintza-eskriurak aurkeztu behar dira).
7.-	Bizikidetza-unitateko kideren bat desgaitasuna duen mugikortasun urri iraunkorreko pertsona da, eta etxebizitza kokatzen den eraikinak ez ditu betetzen indarreko araudian ezarritako irisgarritasun-baldintzak (ziurtagiri teknikoak).
8.-	70 urte edo gehiago dituzu, eta etxebizitza kokatzen den eraikinak ez ditu betetzen indarreko araudian ezarritako irisgarritasun-baldintzak (ziurtagiri teknikoak).
9.-	Pertsonako 15 m <sup>2</sup> -tik beherako ratioa duen etxebizitzaren titularra zara (etxebizitzaren jabetza-eskriura, haren azalera jasotzen duena, edo hori egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoak).

- A. Gaur egun, eskatzaileak edo bizikidetz-unitateko ezein kidek ez dauka etxebizitzarik, baina azken bi urteetan bizikidetz-unitateko kideren bat izan al da edozein motatako etxebizitzaren jabea edo jabe soila, edo azalera-eskubide baten edo gozamen-eskubide baten titularra?

BAI	
EZ	

Erantzuna ezezkoa izan bada, ez duzu dokumenturik aurkeztu behar, ofizioz egiaztatuko baita adierazitakoa egia den.

Erantzuna baiezkoa izan bada, etxebizitzaren eskualdatze-eskritura publikoa edo azalera-eskubidea edo gozamen-eskubidea ezereztearen egiaztagiria aurkeztu beharko duzu.

Adierazi, gainera, honako egoera hauetakoren batean zauden:

- $\frac{1}{2\pi}$  Banantze- edo dibortzio-prozeduraren ondoren, ezkontideen ohiko bizilekua zen etxebizitza eskualdatu da, eta eskatzailearen edo bizikidetz-unitateko kide guztien partaidetzaren edo partaidetzen baturaren (zenbait izanez gero) balioak, eskrituraren arabera, ez ditu gainditzen 75.000 €.
- $\frac{1}{2\pi}$  Herentziaren ondoriozko etxebizitza baten edo zenbaiten partaidetza eskualdatu da, baina titularkidetasun-ehunekoak % 50ekoak edo hortik beherakoak ziren, eta eskatzailearen edo bizikidetz-unitateko kide guztien partaidetzaren edo partaidetzen baturaren (zenbait izanez gero) balioak, eskrituraren arabera, ez ditu gainditzen 75.000 €.
- $\frac{1}{2\pi}$  Dohaintzaren ondoriozko etxebizitza baten edo zenbaiten partaidetza eskualdatu da, baina titularkidetasun-ehunekoak % 50ekoak edo hortik beherakoak ziren, eta eskatzailearen edo bizikidetz-unitateko kide guztien partaidetzaren edo partaidetzen baturaren (zenbait izanez gero) balioak, eskrituraren arabera, ez ditu gainditzen 75.000 €.

#### 4. OINARRIAK ONARTZEA

Eskatzaileak eta bizikidetz-unitateko kideek, beren parte-hartzearekin, *AIU 09 "Ergobia Ibilbidea"* eremuan eraikiko diren *BABES SOZIALEKO 15 etxebizitzaren adjudikaziodunak* hautatzeko lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzen dituzte.

## ERANSKINA

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

#### 1. IDENTIFIKATZEKO:

- a. Bizikidetzaren unitateko 14 urtetik gorako kideen nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen edo bizileku-txartelaren fotokopia.
- b. Seme-alaba adingabeak izanez gero, familia-liburuaren fotokopia.
- c. Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hitzarmen arauemailea eta, hala badagokio, seme-alaba adingabeen zaintza justifikatzen duen epai judiziala).
- d. Alarguntzaren kasuan, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria (familia-liburua, heriotza-ziurtagiria).

#### 2. BIZILEKUA egiaztatzeko:

- a. Astigarragako udalerrian bizilekua izatearen baldintza Astigarragako Udalak egiaztatuko du zuzenean. Buruntzaldeko beste udalerrietan eta gainerako udalerrietan bizilekua izatea, berriz, dagokion udalak emango duen erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Bizilekuaren betekizuna eskatzaileak edo etxebizitzaren titular izango den bizikidetzaren unitateko kideren batek bete beharko du.

#### 3. DESGAITASUN FISIKOA egiaztatzeko:

- a. Mugikortasun urriko desgaitasunaren izaera eta egoera egiaztatzeko ziurtagiria, Gipuzkoako Foru Aldundiak emana.

#### 4. DIRU-SARRERAK egiaztatzeko (titular guztienak, 2019. urteari dagozkionak):

- a. **PFEZren aitortpena egin behar baduzu edo egin baduzu**, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu:
  - i. 2019. urteko ekitaldiari dagokion pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpenaren jatorrizkoa edo kopia erkatua.
  - ii. Gainera, ordaindutakoaren arabekoak ez diren prestazioak jasoz gero, horien ziurtagiria.
- b. **PFEZren aitortpena egin behar ez baduzu (eta egin ez baduzu)**, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu:

- i. Foru Ogasunaren ziurtagiria, ekitaldi horretan (2019. urteari dagokion ekitaldia) PFEZren aitortza aurkeztu beharrik ez izatea egiaztatzen duena.
- ii. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-ibilbidearen ziurtagiria.
- iii. Besteren konturako langileen kasuan, enpresak edo enplegatzaileak emandako dokumentua, ekitaldi horri (2019. urtea) dagozkion kontzeptu guztien ondorioz jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzkoa.
- iv. Pentsiodunen edo edozein beka, prestazio edo sorospenen (gizarte-ongizateko laguntza barne) hartzaileen kasuan, ekitaldi horri dagozkion (2019. urtea) ziurtagiria.

**5. Ezarritako salbuespenezko kasuetan etxebizitza-premia egiaztatzeko:**

- a. Instantzia honen 3. atalean eskatzen den dokumentazio espezifikoa.



## ERANSKINA

### DATU EKONOMIKOAK ETA ERROLDA DATUAK ESKURATZEKO BAIMENA

(Baimen hau bizikidetzaren unitateko kide guzti-guztiak sinatu eta aurkeztu beharko dute)

Baimena ematen diet GAILUR RESIDENCIAL SLri eta Astigarragako Udalari, sail eskudunaren edo horrek izendatzen duen pertsonaren bitartez, erakunde eskudunetatik bil dezaten, etxebizitza adjudikatzeko eskubide baten onuradun gisa hautatua izateko eta, etorkizunean, etxebizitzaren adjudikaziodun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzea egiaztatzeke eta, hala badagokio, eguneratzeko behar diren datuak.

(Astigarragan erroldatuta dauden eskatzaileen edo erroldagatiko lehenetasuna alegatzen duten eskatzaileen kasuan) Baimena ematen diot Astigarragako Udalari nire errolda datuak kontsultatzeko eta GAILUR RESIDENCIAL S.L.-i komunikatzeko, eskabidearen lehenetasun baldintzak ezartzeko helburuz.

Baldin eta GAILUR RESIDENCIAL SL edo Astigarragako Udala bada aurkezteko datuak egiaztatzeke dokumentazioa aurkezteko zuzenean eskatzen didana/diguna, dokumentazio hori horretarako finkatutako epean ez aurkeztea nire/gure uko-egitetzat hartu ahal izango da eta, ondorioz, prozesutik baztertuta geratu ahal izango naiz/gara.

Era berean, baimena ematen dut eskabide honetako datuak beste administrazio publiko batzuei, zuzenbide publiko eta pribatuko erakundeei eta sozietate publikoei jakinarazteko —guztiak ere etxebizitza-arloan eskudunak—, baita etxebizitza sustatzen duten erakunde pribatuei ere, kasu guztietan etxebizitzak esleitzeko helburuarekin.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) betetzeko, jakinarazten da emandako datuak eta lortzeko baimentzen direnak Udalaren titulartasuneko fitxategietan sartuko direla tratatzeko.

Data eta lekua

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura

Sin.: izena, abizenak, NANA eta sinadura